

B euskararen BERRIPAPERERA

Kurrikulu berria ate joka

HABEK prest du dagoeneko euskara ikasteko prozesuaren kurrikulu berria. Horren arabera, lau mailatan banatuko da euskararen ikasprozesua.

Lehenengo mailak, oinarrikoa izanik ere, oinarri sendoak eskatzen dizkio ikasleari; maila hori gainditzean ikasleak gai izan beharko baitu eguneroko harremanetan gertatzen diren elkarriketak nahikoa txukun burutzeko, erdarara jo beharrik izan gabe. Testu idatzi laburrak oinarriko koherentziak ulertu eta idazteko ere gai izango da.

Bigarren mailan, aurrekoan jasotako trebetasunak sakondu eta garatuko ditu ikasleak, baita hizkuntz ekoizpena areagotu ere.

Hirugarren maila EGAK eskatzen duen gaitasunaren parekoa izango da.

Azkenik, laugarren mailak, EGAtik gorakoak, arlo profesional, espezializatu eta zientifikoan euskaraz komunikatzeko gaitasuna bermatzen du.

Maila bakoitzaren definizioa egiterakoan, alderdi didaktikoa ezezik euskararen eta Euskal Herriaren egoera soziolinguistikoa ere kontuan hartu nahi izan da. Kurrikulu berria garatu duten HABEko didaktikarrien ustez, "Didaktikaren aldetik eta irakaskuntza eratzeari begira, agian, luzeegia

da mailaketa-sistema hau, lehenengo mailari dagokionez bereziki (ikasprozesuaren erdia hartzen baitu), baina ikuspegi soziolinguistikoa maila hau altu samar jartzera bultzatu gaitu".

Kurrikulu berriak lehen urratsak eginak ditu dagoeneko. Hasteko, kurrikulua bera berritzeko erabakia, orain lau urte hartu zena. Erabakiaren ondotik, bi lan garatu dira: bata, oinarriko dokumentua, oinarriko printzipioak, ikas-irakaskuntza prozesuaren helburu eta eduki mailakatuak, eta

burutu da. Datorren urtean egingo da hirugarren mailari dagokiona, eta ondoren etorriko da oraindik eginkizun dagoen laugarren mailarena.

Kurrikuluaren oinarriak eta planteamendua egokiak diren ala ez testatzeko, mailen definizioa zehaztuz joateko, prozesuaren iraupenari buruzko informazioa jasotzeko, berrikuntzak dakarren aldatetaren berri izan, eta egindako ibilbidea heziketa-bide bilakatzea izan da aplikazio-aldiaren xedea.



X Kurrikulu berriak lehen urratsak eginak ditu dagoeneko.

irizpide metodologikoak zein ebaluazioari dagozkionak; bestea, aplikazioa. Lehenengo mailaren aplikazioa, 1994-95 eta 1995-96 ikasturteetan burutu zen 9 saio-taldetan. Bigarren mailarena 1996-97 ikasturtean

Bestalde, kurrikuluaren garapenari begira, bada oraindik zer eginik: dokumentua bera osatu, egokitu eta orraztu, euskararen korpusa aztertu, saio-euskaltegiekin lan egin, eta material kurrikularra diseinatu.

S U M A R I O A

- 1** Kurrikulu berria ate joka
- 2** Laburrak
Koldo Izagirre Urreaga
Agenda
- 3** *Lengua Vivak* eta *Hitzarok 100 saio*
Hitzarmena Kutxan euskararen erabilera plana bideratzeko
- 4** Segurako mende-hasierako bandoa
Lehen begiratuan

Ikasturte berriaren aurrean, HABEK material kurrikularren diseinuan jarraitzeko asmoa du. Eredu izan daitekeen aukera bat eskaintzea du helburu HABEK, ez material instituzionala edo preskriptiboa ezartzea.

Une honetan zenbait saio-euskaltegitako irakasleak ari dira, HABEko teknikariek elkarlanean, ikastunitateen diseinu eta aplikazio informalean. Hurrengo ikasturtean ikastunitateen berriaz egingo da, hainbat euskaltegitan esperimentazio formala egin eta gero. Horrekin batera, HABEK hainbat teknikari prestatuko ditu, heziketaren bidez materialak euskaltegi guztietara zabaltzeko.

Horrela, bada, teknikari batzuk kurrikulu berriaren aplikaziorako aukeratu diren gaitan espezialduko dira. Aurreikusten diren pausoak ondo egiten badira, kurrikulu berria 1999-2000 ikasturtean erabat hedatuko da.

LABURRAK

Euskaltzaindiak 171 milioi jasoko ditu erakundeetatik

Euskaltzaindiak 171 milioi pezeta inguru jasoko ditu aurtien Hego Euskal Herriko erakundeetatik, prentsaurrekoan jakinarazi zutenez. Joan den martxoan sinatutako hitzarmenaren ondorio da hau. Euskaltzaindiak aurtien izango duen dirulaguntza, horrela banatuko da erakundeen artean: Eusko Jaurlaritzak 99 milioi emango ditu (% 58), Nafarroako Gobernuak 17 (% 10), Arabako Foru Aldundiak 7 (% 4,5), Bizkaiko Foru Aldundiak 28 (% 16) eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 17 milioi (% 10).

Diru hori aurrekontu arrunterako, bibliotekarako argitalpen batzorderako eta hainbat egitasmotarako erabiliko du. Egitasmo horien artean hiztegiagintza, gramatikagintza, dialektologia, onomastika, literatura, euskara batua eta ahoskerari buruzko lanak daude.



AEKren irratsaioak euskara lantzeko

Badira bizpahiru urte Herri Irratiak eta AEKK euskara ikasten ari direnentzat nahiz euskaldun zaharrentzat, irratsaioak antolatzen dituztela. Gaur egun, ordu laurdenero saioa egiten da, hamabostean behin eta asteartetan, Donostiako *Xirimiri* euskaltegiko irakasle talde batek prestatuta.


Bi atal nagusitan azal daiteke edukia. Batetik, *sketch* bat eratzten dute euskaldun zahar eta berriek usuen egiten dituzten akatsak identifikatu eta beren zergatia eta zuzenketa azaltzeko. Bestetik, elkarrizketa bat egiten da, bertako zein kanpoko jendea oinarri hartuta. Hala, elkarrizketatua izan liteke euskara ikasten ari den atzerritar bat, edo kirol munduko lagun bat besteak beste.

Uda iristearrekin batera, irratsaioa aldatu egiten da, bai edukiz bai lekuz, euskara ikasteko barnetegietara eramaten baitute hango eta hemengo giroa, kezkak eta beharrak azaltzeko.

Koldo Izagirre

Koldo Izagirre Pasaian sortu zen 1953an. Hogeita bi urte zituela *Ustela* aldizkarian plazaratu zituen lehen literatura lanak eta 1976an eman zuen argitara bere lehenengo liburua, *Itsaso ahantzia* poesia sorta. *Oh Euzkadi* literatura aldizkarian parte hartuz, Ramon Saizarbitoria, Ramon Etxezarreta eta beste hainbatekin batera jardun zuen. Poesia, narrazioa eta saiakera jorratuz hainbat lan egin du. Poesian, esaterako, *Oinaze zaharrera* (1977), *Guardasola ahantzia* (1978), *Balitzko erroten erresuma* (1989) eta *Non dago Basques' Harbour* (1997) argitaratu ditu. Narratibari dago-kionez, *Zergatik bai* (1977) fikziozko haur hizkuntzan idatziriko kontakizun berezia eman zuen argitara lehenengo. *Hurren izan ziren Gauzetan* (1978), *Euzkadi merezi zuten* (1982), *Mendekuak* (1987), *Ez duk erraza, konpai!* (1995) eta *Vladimir* (1997). Saiakerak ere egin ditu. *Lokuzio Hiztegia* (1981) du guztietan ezagunena,

gure esamoldeen bilketa-lan bikaina. Iñigo Aranbarrerekin *Gerraurreko literatura kritika, 1930-1936* idatzi zuen 1996an, garaiko prentsa eta aldizkarietako kritiken azterketa eta antologia eginaz. Urte berean *Gure zinemaren historia petrala* argitaratu zuen. Berriki, *Donostiako azken 200 urteetako euskararen historia baterako* izeneko azterketa burutu du, baina oraindik ez da argitaratu. Euskarari gainbegiratu historiko luzea egiteaz gainera hainbat atal landu ditu: toponimia, auzoak, euskarazko prentsa Donostian, publizitatea, irratigintza, hizkuntza eskolatan... *Horra Metxa esaten dioten agirretar baten ibilera herrenak* (1991) narrazioa idatzi du gazteentzat. Haur eta helduentzako marrazki bizietan gidogile izan da: *Kalabaza Tripontzia*, *Fernando Amezketarra* eta *Lazkao Txiki* dira



adibide. Zinemagintzan ere jardun du, *Ke arteko egunak* eta *Off-eko maitasuna* filmeak zuzendu ditu. Itzultzaile ere bada eta euskarara itzuli ditu, esaterako, Castela, Paco Martin, Uxio Novoneira, Rafael Dieste, Vladimir Maiakowski, Joan Savat-Papasseit eta Merimée. Lan argitaratu berria du *Incursiones en territorio enemigo* hitzaldi sorta ere, Euskal Herriatik kanporekiko kultura eta hizkuntzari buruz eginkoak.

AGENDA

Ikastolen aldeko festak

Badatoz, udaberriarekin batera, ikastolen aldeko festak. Ohiturari jarraituz, milaka lagun topagune izango dira ikastolen aldeko egun horiek. Izan ere, ikastolei laguntza ematearekin batera, lagunartean igarotzeko aitzakia ezin hobea izaten dira, eguraldiak laguntzen duenean, behintzat. Beti bezala, Iparraldean hasiko da ikastolen festen ibilbidea, Bizkaian jarraitu eta, oraingoan, Araban bukatzeko.

Hona hemen data eta toki zehatzak:

- Herri Urrats, maiatzak 10, Senperen.
- Ibilaldia, maiatzak 31, Mungian.
- Araba Euskaraz, ekainak 7, Araian.

Gipuzkoako eta Nafarroako ikastolen aldeko festek emango diete jarraipena.

★ **Ahoz aho, belaunez belaun ... hil honetan non?**


Maitzaren 4tik 16ra Irunen

Lengua Vivak eta Hitzarok 100 saio

Ehun saio bete dituzte *Lengua Vivak* eta *Hitzarok*, euskararen inguruan ari diren ETBko telebista-programek. Ehungarren saioaren aitzakian zenbait gonbidatu berezi ageri izan ziren eta agur beroa eskaini zieten *Lengua Viva* eta *Hitzaroko* ikusle eta arduradunei. Agurra eskaini zutenen artean ziren, esate baterako, Josune Ariztondo, Xabier Mendiguren Bereziartu, Mikel Zalbide, Izaskun Aranburu, Enkarni Genua, Jeni Prieto, Begoña Muruaga, Pantxoa Etchegoin,... Askotariko jendea, beraz, eta aldez edo moldez euskaraz eta euskararen normalizazioaren alde lanean ardi direnak, denak ere.

Euskararen gaineko albisteak lantzea dute helburu *Lengua Viva* eta *Hitzarok* eta Euskal Herri osoa dute erreferentzia. Mauletik Enkarterrietaraino, Baionatik Tuteraraino, bateko eta besteko gai, pertsonaia, toki eta emanaldiak ageri izan dira 100 programetan zehar. Albiste laburren berri emanenez, erreportaje biziak erakutsiz, elkarrizketa jakingarriak eginez, gure herrietako irudirik berrienak pantailaratu, ... euskararen usain gozoa zabaltzen ari dira *Lengua Viva* eta *Hitzaro* lehenengo saiotik.

Gaztelaniaz ikusten ahal dugu *Lengua Viva*, larunbatero, ETBko bigarren katean eta euskaraz, berriz, *Hitzaro*, igande eguerdian. Bertako egoerari ez ezik, saio biek arreta berezia eskaini diote euskarak Euskal Herritik kanpo bizi duen egoerari: alegia, euskara gure mugetatik aparte ere zertan den sarri eman izan da aditzera. William A. Douglass antropologoa izan da horretan nabarmenetakoa. Renoko (Nevada) Unibertsitateko *Basque Studies Programeko*



X *William A. Douglass antropologo eta euskaltzalea.*

koordinatzaile buruak elkarrizketa guztiz aberatsa eskaini zuen joan den martxoan, Renoko Euskal Mintegiaren eta EEBBetako euskaldunen eta euskararen berri jakingarriak eskainiz eskusiban *Lengua Viva* eta *Hitzaron*.

Bi telebista-saioak Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren laguntzaz egiten dira.


X *Mikel Irizar da ETBko Hitzaro eta Lengua Viva saioetako aurkezlea.*



Hitzarmena Kutxan euskararen erabilera plana bideratzeko

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren eta Gipuzkoa-Donostia Kutzaren artean hitzarmena sinatu da bertan gauzatuko den euskararen erabilera-plana bideratzeko. Lan-munduan euskara erabiltzeko zenbait proiektu martxan jarriak zirela jakinik, Kutxak helburu bereko ekimena garatzeko laguntza eskatu zion Hizkuntza Politikarako Sailordetzari. Horren ondorioz, Kutxaren ezaugarrietara egokitutako plana landu zen. Helburua, jakina, Kutxako langileak gaztelaniaz nahiz euskaraz lan egin ahal izatea zen. Plana abiatzeko gune aproposa Goierri-Tolosaldea ikusi da bideragarritasun azterketan, eta horrekin batera zenbait departamentu zentral. Horiek helduko diote aurten planari. Planaren jarraipen zuzena egiteko Jarraipen Batzordea eratuko da eta Kutxako ordezkariak gain, Hizkuntza Politikarako Sailordetza ere partaide izango da.

Segurako mende-hasierako bandoa



Bitxikeria gisa dator orrialde honetara Zegaman orain gutxi aurkitu duten dokumentua.

Paper zaharren artean arakutzen hasi eta, ustekabean, gaztelaniaz idatzitako beste hainbaten artean, euskaraz idatzitako dokumentu hau azaldu zen.

Seguran sinatutako mende-hasierako dokumentu honek, antzinatasunari dagokionez ez du aparteko garrantzirik -1916koa da- baina deigarri gertatzen da euskara txukun-txukunean idatzia egoteagatik.

Seguran sinatuta dago bai, baina hizkera ez da inguru horretakoa; hortaz, pentsa daiteke idatzi zuenak bazuela

nolabaiteko hizkuntza-ezagutza. Erakusgarri modura, hona hemen dokumentu honen zati bat:

“Parzoneriko Juntak erabakidu bideak berritzea juandan urteko eran.

Orretarako, garoa ekartzen duten guziak beariko dute juan lanera datorren asteartean goizeko zortzietarako, eramanaz bakoitzak pikachoya edo achurra eta peazaya. Idiazabal eta Ursuangoak juango dira Echegaratera eta gañerakoak Otzaurtera.

Juaten ez diranen izenak artuko dira eta ezin garorik ekarriko dute nola ta bost peseta pagatzen ez duten”.

Lehen begiratuan

Arabako euskararen lekukoak. *Ikerketak eta testuak*, Henrike Knörr eta Koldo Zuazok prestatutako testu-bilduma da. Aurreko mendeetan Araban egiten zen euskara-mota aurki daiteke liburu honetan bildutako material oso desberdinean: olerkiak, hiztegia, gabon-kantak, etab. Knörren datuen arabera, XIX. mendearen hasiera aldera arabarren % 40k egiten zuen euskaraz; orduan Araban zeuden 56 ermandadeetatik, 22 omen ziren euskaldunak.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

